



## BANDOA

### **N-634 errepidearen itxieraren harira, Itziar eta Deba arteko joan etorriak egiteko bideak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Debako Udalari eta Itziarko Auzo Udalari jakinarazi dionaren arabera, N-634 errepideak gutxienez bi hilabetez egon beharko du itxita eremua behar bezala egonkortu eta segurtasunez ireki ahal izateko.

Horren harira, eta herritarrei Itziar eta Deba arteko bidaiak arindu, eta erosoagoak eta irisgarriagoak egiteko helburuarekin, herritarrei jakinarazten zaie ostegunetik aurrera, apirilak 17, Deba eta Itziar arteko joan etorriak egiteko baimendutako eta ez baimendutako ibilgailuentzat bideak bereiziko direla.

#### **Baimendutako ibilgailuentzako bidea**

Ostegunetik aurrera, apirilak 17, Mendata institututik Oloki baserrira doan bidea (San Roke bidea) bi norantzatan egongo da zabalik.

Debatik Itziarrera igotzeko, baimendutako ibilgailuek orain arteko bide berdina egin beharko dute, hau da, San Roke bidean gora igo eta Doniene baserriraino joan beharko dute. Donienera iritsita, N-634 errepidera atera beharko dute. Olokitik bidegurutzetik Doniene baserrirainoko tartea, norabide bakarrekoa izango da eta Itziarrera doazen ibilgailuek soilik pasa ahal izango dute.

Itziartik Debara jeitseko, berriz, N-634 errepidetik egin beharko dute bidaia, Atxili baserriko bidea hartuta, Olokitik bidegurutzeraino, bertan eskubi aldera biratu eta San Roke bidea hartu ahal izateko. Aurrez aipatu bezala, Olokitik Mendata institutura bitartean, errepidea bi norantzatan egongo da zabalik, eta lehentasuna izango dute goranzko norabidean doazen ibilgailuek.

Baimendutako ibilgailuek bi noranzkoetan egin beharreko ibilbideak atxikitako planoan adierazten dira. Berde kolorez, Debatik Itziarrera. Urdinez, Itziartik Debara.

Herritarrei eskatzen zaie bide hauek kontuz erabil ditzatela, abiadura motelean eta bertako bizilagunak zein baserrietako animaliak errespetatuz, guztien arteko bizikidetzaz egokia bermatzeko. Arreta berezia jarri beharko da batez ere Mendata institututik Olokitik bidegurutzerara arteko tartean, ahal den neurrian eskuin bazterretik igaro beharko da, ibilgailuek bi norantzatan igarotzea bermatzeko. Aurrez aipatu bezala, lehentasuna goranzko norabidean doazen ibilgailuek izango dute.



### **Zeintzuk dira baimendutako ibilgailuak**

Baimendutako ibilgailuak izango dira bertako txartela dutenak edo hau izan ezean, zirkulazio zerga udalerrian ordaindu eta udaltzaingoak baimendutako ibilgailuak. Azken kasu honetan, bertako txartela ez dutenek, baimena udaltzaingoan edo Itziarko herritarrentzako arreta zerbitzuan (burugorri gainean) eskatu beharko dute asteartetik aurrera, apirilak 22.

### **Baimendu gabeko ibilgailuentzako bidea**

Orain arte bezala, baimendu gabeko ibilgailuak AP-8 autopistatik edo Lasturko GI-3210 errepidetik egin beharko dituzte Deba eta Itziar arteko joan-etorriak.

Azkenik, adierazten da N-634 errepidea Itziartik Galp gasolindegia bitarte irekita egongo dela.

2025eko apirilaren 16an,

**ALAZNE TXURRUKA ALLIKA**

**ARANTZA EGAÑA ALDALUR**

**DEBAKO ALKATEA**

**ITZIARKO AUZO ALKATEA**



## BANDO

### **Recorridos de ida y vuelta entre Itziar y Deba con motivo del cierre de la N-634**

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha comunicado al Ayuntamiento de Deba y a la Entidad Menor de Itziar que la carretera N-634 deberá permanecer cortada al menos durante dos meses para poder estabilizar adecuadamente la zona y abrirla con seguridad.

Debido a ello y con el objetivo de agilizar los viajes entre Itziar y Deba y hacerlos más cómodos y accesibles, se informa a la ciudadanía de que, a partir del jueves, 17 de abril, se separarán las vías para los vehículos autorizados y no autorizados para los desplazamientos entre Deba e Itziar.

#### **Recorrido para vehículos autorizados**

A partir del jueves, 17 de abril, el camino que va desde el instituto Mendata al caserío Oloki (camino de San Roque) permanecerá abierto en doble sentido.

Para desplazarse de Deba a Itziar, los vehículos autorizados deberán recorrer el mismo camino que hasta ahora, es decir, subir por el camino de San Roque y dirigirse hasta el caserío Doniene. Llegados a Doniene, tendrán que salir a la carretera N-634. El tramo que va desde el cruce de Oloki hasta el caserío Doniene será unidireccional y sólo podrán pasar los vehículos que vayan a Itziar.

Para desplazarse desde Itziar a Deba, deberán realizar el viaje por la carretera N-634, tomando el camino del caserío Atxili, hasta el cruce de Oloki, donde podrán girar hacia la derecha para tomar el camino de San Roque. Tal y como se ha mencionado anteriormente, la carretera entre Oloki y el instituto Mendata permanecerá abierta en doble sentido y tendrán prioridad los vehículos que circulen en sentido ascendente.

Los recorridos a realizar por los vehículos autorizados en ambos sentidos se indican en el plano adjunto. De color verde, los desplazamientos desde Deba a Itziar. De azul, desde Itziar a Deba.

Se pide a la ciudadanía que utilice estas vías con precaución, circulando a una velocidad lenta y respetando tanto a sus vecinas y vecinos como a los animales de los caseríos, para garantizar una adecuada convivencia. Se deberá prestar especial atención en el tramo comprendido entre el Instituto Mendata y el cruce de Oloki, debiendo discurrir, en la medida de lo posible, por el margen derecho para

---



garantizar el paso de vehículos en doble sentido. Como se ha señalado anteriormente, tendrán prioridad los vehículos que circulen en sentido ascendente.

### **Cuáles son los vehículos autorizados**

Tendrán la consideración de vehículos autorizados aquellos que dispongan de la tarjeta de residente o, en su defecto, los vehículos que paguen el impuesto de circulación en el municipio y sean autorizados por la Policía Municipal. En este último caso, los que no dispongan de la tarjeta de residente, deberán solicitar el permiso en la policía municipal o en el servicio de atención ciudadana de Itziar (en Burugorri) a partir del martes, 22 de abril.

### **Recorrido para vehículos no autorizados**

Como hasta ahora, los vehículos no autorizados deberán realizar sus desplazamientos entre Deba e Itziar por la autopista AP-8 o por la carretera GI-3210 de Lastur.

Por último, se indica que la carretera N-634 estará abierta desde Itziar hasta la gasolinera Galp.

El 16 de abril de 2025,

**ALAZNE TXURRUKA ALLIKA**

**ARANTZA EGAÑA ALDALUR**

**DEBAKO ALKATEA**

**ITZIARKO AUZO ALKATEA**